Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

# AKTA / ACTA

**BERTARATUAK /** ASISTENTES

**Alkatea /** La Alcalde
IGOTZ LOPEZ

**Idazkaria /** Secretario
JOSE IGNACIO ARBERAS

**Zinegotziak/** Ediles
JOSU URRUTIA
ELENA IGLESIAS
MIREIA ZARATE
MIGUEL ANGEL GOMEZ
IÑAKI ATXUTEGI
JOSE Mª OLARRA
AGURTZANE BERNAOLA
IBAI ELORRIAGA
ANE PERAL

**2014ko uztailaren 3an** zortzi eta laurdenak direnean biltzen da **UDALEKO OSOKO BILKURA** Zamudioko elizateko Udaletxean, **ohiko bilkura** eginik, deialdia erregelamenduz ezarritako epean eta moduan jaso ondoren; goian adierazten diren zinegotziak agertu dira. IKER OAR zinegotzia, berriz, ez dago osoko bilkuran.

En la Anteiglesia de Zamudio, siendo las ocho horas y quince minutos del día **3 de julio de 2014**, se reúne el **PLENO DEL AYUNTAMIENTO** en sesión **Ordinaria,** en la Casa Consistorial, tras haber recibido la convocatoria en tiempo y forma reglamentaria, asistiendo los ediles que arriba se anotan, estando ausente el edil IKER OAR.

1.- 2003KO AZAROAREN 7KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Ibai Elorriaga Bildu udal-taldearen ordezkariak hartzen du hitza, eta adierazten du ondo deritzola gai-zerrendan sarturiko aktak onartzeko aurkezteari, baina kontuan izanik luzeak direla eta egun bi baino ez dituztela izan irakurtzeko, eskatzen du utz daitezela mahai gainean, eta onar daitezela ondoren, hala badagokio, beste osoko bilkura batean.

Alkate jaunak hartzen du hitza, eta adierazten du ez dagoela arazorik akta horiek mahai gainean uzteko eta ondorengo beste osoko bilkura baten gai-zerrendan sartzeko, onar daitezen.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 7 DE NOVIEMBRE DE 2013.

Toma la palabra el representante del grupo municipal Bildu, Ibai Elorriaga, para manifestar que le parece bien que se hayan presentado para su aprobación las actas contenidas en el orden del día, pero que dada la extensión de las mismas y que se ha dispuesto de dos días solamente para su lectura, solicita que se dejen sobre la mesa y en otro pleno posterior, en su caso, se aprueben.

Toma la palabra el Sr. Alcalde, para señalar que no existe ningún problema en dejar las mismas sobre la mesa, para en un pleno posterior incluirlas nuevamente en el orden del día para su aprobación.

El acta queda sobre la mesa.

2.- 2013KO ABENDUAREN 19KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 19 DE DICIEMBRE DE 2013.

El acta queda sobre la mesa.

3.- 2014KO URTARRILAREN 2KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 2 DE ENERO DE 2014.

El acta queda sobre la mesa.

4.- 2014KO APIRILAREN 29KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 29 DE ABRIL DE 2014.

El acta queda sobre la mesa.

5.- 2014KO EKAINAREN 3KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 3 DE JUNIO DE 2014.

El acta queda sobre la mesa.

6.- 2014KO OTSAILAREN 14KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Akta mahai gainean uzten da.

➢ APROBACIÓN DEL ACTA DEL 14 DE FEBRERO DE 2014.

El acta queda sobre la mesa.

## A) OSOKO BILKURARI EBAZTEKO AURKEZTU ZAIZKION GAIAK.

## A) ASUNTOS QUE SE SOMETEN A RESOLUCIÓN DEL PLENO.

7.- ZEN TALDEAK EGINIKO 400 EUROKO DOHAINTZA ONARTZEA. (BS-14-28)

Idazkariak osorik irakurtzen du Ogasun, Herritarren Arreta, Ingurumen eta Enpleguko informazio-batzordeak 2014ko uztailaren 1ean emandako irizpena:

*"ZEN IKASTAROA.- 400 EUROKO DOHAINTZA.- (BS-14-28)*

*Aditzera ematen da Inmaculada Olabarrietak idazki bat aurkeztu duela eta haren bidez Udalari jakinarazten diola 2014ko maiatzean eginiko ZEN ikastaroko taldeak 400 euroko dohaintza egin duela gizarte-xedeetara bideratzeko.*

*Batzordeak aho batez proposatzen du Udaleko Osoko Bilkurak ebazpen hau ematea:*

*LEHENA.- Zamudioko udalerriko herritarrentzako gizarte-larrialdietarako laguntzetara bideratuko den 400 euroko kopuruaren dohaintza onartzea.*

*BIGARRENA.- Kontuan izanik Txorie-*

➢ ACEPTACIÓN DE LA DONACIÓN DE 400 € DEL GRUPO ZEN. (BS-14-28)

Por el Secretario se procede a dar lectura integra del dictamen emitido por la Hacienda, Atención Ciudadana, Medio Ambiente y Empleo, del día 1 de julio de 2014:

*"CURSO ZEN.- DONACIÓN DE 400 €.- (BS-14-28)*

*Dada cuenta del escrito presentado por Inmaculada Olabarrieta, en virtud del cual comunica al Ayuntamiento la donación del importe de 400 €, procedente del grupo del curso de ZEN de mayo de 2014, a fin de que se destine a fines sociales.*

*La Comisión, por unanimidad, propone que por el Pleno del Ayuntamiento, se adopte la siguiente resolución:*

*PRIMERO.- Aceptar la donación por el importe mencionado de 400 euros destinada a ayudas de emergencia social para vecinos del municipio de Zamudio.*

*SEGUNDO.- En función de la competen-*

*rriko Zerbitzuen Mankomunitateak duela eskumen hori bere gain harturik, Mankomunitateari bidaltzea diru kopuru hori, haren mendeko gizarte-zerbitzuek eman diezazkieten aipatu den diru kopuruko gizarte-larrialdietarako laguntzak premia duten Zamudioko herritarrei.*

*cia asumida por la Mancomunidad de Servicios del Txorierri, remitir el citado importe a la Mancomunidad a fin de que por los servicios sociales dependientes de la misma, se proceda a la concesión de ayudas de emergencia social por el citado importe a vecinos del municipio de Zamudio que así lo precisen.*

*HIRUGARRENA.- Transferitutako zenbatekoari dagozkion laguntzak emandakoan, Mankomunitateari eskatzea onuradunen eta emandako zenbatekoen justifikazioa aurkez dezala Udalean."*

*TERCERO.- Una vez que se concedan las ayudas correspondientes al importe transferido, solicitar de la Mancomunidad que se aporte al Ayuntamiento la justificación de los beneficiarios e importes concedidos."*

Alkate jaunak, bilkurako presidentea den aldetik, talde politikoetako bozeramaileak gonbidatzen ditu hitz egiteko txanda erabiltzera, baina bozeramaileek berretsi egiten dute informazio-batzordean adierazitakoa.

El Señor Alcalde, Presidente de la sesión, invita a los portavoces de los grupos políticos a que utilicen el turno de intervención, ratificándose en lo manifestado en la Comisión Informativa.

Bozketa egiten da jarraian, eta, bozketa horren bidez, hau erabakitzen du Udaleko Osoko Bilkurak aho batez:

Seguidamente se procede a la votación, en virtud de la cual el Pleno del Ayuntamiento, por unanimidad, se acuerda:

**LEHENA.-** Zamudioko udalerriko herrita-rrentzako gizarte-larrialdietarako lagun-tzetara bideratuko den 400 euroko kopuruaren dohaintza onartzea.

**PRIMERO.-** Aceptar la donación por el importe mencionado de 400 euros destinada a ayudas de emergencia social para vecinos del municipio de Zamudio.

**BIGARRENA.-** Kontuan izanik Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak duela eskumen hori bere gain harturik, Mankomunitateari bidaltzea diru kopuru hori, haren mendeko gizarte-zerbitzuek eman diezazkieten aipatu den diru kopuruko gizarte-larrialdietarako laguntzak premia duten Zamudioko herritarrei.

**SEGUNDO.-** En función de la competencia asumida por la Mancomunidad de Servicios del Txorierri, remitir el citado importe a la Mancomunidad a fin de que por los servicios sociales dependientes de la misma, se proceda a la concesión de ayudas de emergencia social por el citado importe a vecinos del municipio de Zamudio que así lo precisen.

**HIRUGARRENA.-** Transferitutako zenbate-koari dagozkion laguntzak emandakoan, Mankomunitateari eskatzea onuradunen eta emandako zenbatekoen justifikazioa aurkez dezala Udalean.

**TERCERO.-** Una vez que se concedan las ayudas correspondientes al importe transferido, solicitar de la Mancomunidad que se aporte al Ayuntamiento la justificación de los beneficiarios e importes concedidos.

8.- <u>ARTEAGAKO KIROL-, GIZARTE- ETA KULTURA-EKIPAMENDUKO 1. FASEKO OBRAK EGITEKO KONTRATUA ESLEIT-</u>

➢ <u>ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DE EQUIPAMIENTO DEPORTIVO Y SOCIO CUL-</u>

ZEA: HORMAK EGITEA. (OS-13-44)

TURAL EN ARTEAGA 1ª FASE: EJECUCIÓN DE MUROS. (OS-13-44)

Idazkariak osorik irakurtzen du Hirigintza, Obra, Zerbitzu eta Etxebizitzako informazio-batzordeak 2014ko uztailaren 1ean emandako irizpena:

Por el Secretario se procede a dar lectura integra del dictamen emitido por la comisión de Urbanismo, Obras, Servicios y Vivienda, del día 1 de julio de 2014:

*"ARTEAGA SEKTOREKO KIROL-, GIZARTE- ETA KULTURA-EKIPAMENDUA EGITEKO OBRA ESLEITZEA. 1. FASEA, HORMAK EGITEA.- (OS-13-44-2)*

*"ADJUDICACIÓN DE LA OBRA DE EQUIPAMIENTO DEPORTIVO Y SOCIO-CULTURAL EN EL SECTOR ARTEAGA. 1ª FASE EJECUCIÓN DE MUROS.- (OS-13-44-2)*

*Idazkariak aditzera ematen du Inbisa Construcción (BYCO SA) enpresak eta Construcciones Intxausti SA enpresak eraturiko aldi baterako enpresa-elkarteak garaiz eta forma egokian aurkeztu dituela eskaintza ekonomikorik mesedegarriena egiteagatik eskatu zitzaizkion agiriak.*

*Se da cuenta por el Secretario de la presentación por la UTE formada por Inbisa Construcción (BYCO SA) y Construcciones Intxausti SA. Se ha presentado en tiempo y forma la documentación que le fue requerida en cuento haber resultado la oferta económica más ventajosa.*

*Balioespena egiteko ardura duen enpresak (BOSLAN) proposamen guztiak balioesteko aurkezturiko txostenaren berri ematen da:*

*Se da cuenta del informe de valoración de todas las propuestas aportado por la empresa BOSLAN, encargada de realizar la valoración:*

| | | ***Zifra edo formula bidez ebaluatzekoak ez diren esleipen-irizpideak (40/100)*** / *Criterios de adjudicación no evaluables mediante cifras o fórmulas (40/100)* | ***Zifra edo formula bidez ebaluatzekoak diren esleipen-irizpideak (60/100)*** / *Criterios de adjudicación evaluables mediante cifras o porcentajes (60/100)* | ***Balioespena, guztira (100/100)*** / *Valoración total (100/100)* |
|---|---|---|---|---|
| | | *40,00* | *60,00* | ***100,00*** |
| *1* | ***U.T.E. INBISA - INTXAUSTI*** | *30,25* | *60,00* | ***90,25*** |
| *2* | ***CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES BALZOLA S.A.*** | *28,50* | *60,00* | ***88,50*** |
| *3* | ***EXBASA OBRAS Y SERVICIOS S.L.*** | *28,00* | *60,00* | ***88,00*** |
| *4* | ***VICONSA S.A.*** | *29,00* | *51,08* | ***80,08*** |
| *5* | ***GABIKA*** | *25,75* | *53,39* | ***79,14*** |
| *6* | ***URBELAN*** | *28,50* | *49,75* | ***78,25*** |
| *7* | ***CONSTRUCCIONES URRUTIA S.A.*** | *23,75* | *48,78* | ***72,53*** |

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 8 | LURGOIEN S.A. | 31,50 | 37,58 | 69,08 |
| 9 | EBA | 28,00 | 33,63 | 61,63 |
| 10 | BERMEOSOLO | 21,50 | 37,16 | 58,66 |
| 11 | U.T.E. CONSTRUCCIONES LAUKI S.A. - VUSA, VALERIANO URRUTIKOETXEA S.A. | 21,75 | 30,75 | 52,50 |
| 12 | JAUREGUIZAR PROMOCIÓN Y GESTIÓN INMOBILIARIA S.L. | 20,50 | 27,11 | 47,61 |
| 13 | GAIMAZ INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS S.A. | 29,50 | 10,00 | 39,50 |
| 14 | CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L. | 27,50 | 10,50 | 38,00 |
| 15 | U.T.E. CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. - CONSTRUCCIONES LEGASKO S.L. | 25,25 | 10,00 | 35,25 |
| 16 | ZIKOTZ S.A. | 17,50 | 10,00 | 27,50 |

*Batzordea jakinaren gainean dago eskaturiko agiriak aurkezteko izapidea bete egin dela, eta, Bildu taldearen (3) aurkako botoarekin eta EAJ-PNV taldearen (6) baiezko botoarekin, proposatzen du erabaki hau har dadin:*

*LEHENA.- «Arteagan kirol-, gizarte- eta kultura-ekipamendua egiteko obrak. 1. fasea: hormak egitea» izeneko kontratua INBISA CONSTRUCCIÓN aldi baterako enpresa-elkarteari (BYCO, PERTSONA BAKARREKO SOZIETATE ANONIMOA – CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, SA) esleitzea, eskainitako zenbatekoan: 458.405,51 euro (BEZik gabe); BEZaren zenbatekoa 96.265,16 euro denez, gutira 554.670,67 euro egiten du (BEZa barne); eskainitako 21 asteko epean egin beharko dituzte obrak, zuinketa-aktaren datatik kontaturik. Enpresa horrek egin du ekonomikoki eskaintzarik onena Udalarentzat, bai eskaintza teknikoaren edukiarengatik eta bai exekuzio-epearen murriztapenarengatik, prozedura honetan egiaztatuta geratu denez, eta ezarritako betekizun guztiak bete ditu.*

*BIGARRENA.- Kontratuaren esleipendunari eskatzea Udaletxera ager dadila gehienez ere hamabost egun baliodunneko epean, kontratua esleitu zaiola jakinarazten dion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaturik, SPKLren*

*La comisión se da por enterada del cumplimiento del trámite de presentación de la documentación solicitada, y con el voto en contra del grupo Bildu (3) y el voto a favor del grupo PNV (6) propone se adopte el siguiente acuerdo:*

*PRIMERO.- Adjudicar el contrato de Ejecución de las obras de equipamiento deportivo y socio-cultural en Arteaga – 1ª Fase: Ejecución de Muros, a la UTE INBISA CONSTRUCCIÓN (BYCO, S.A. SOCIEDAD UNIPERSONAL – CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, S.A., en el importe ofertado de 458.405,51 € (IVA excluido), siendo el importe del IVA de 96.265,16 €, lo cual totaliza el importe de 554.670,67 € (IVA incluido), para la ejecución de dichas obras en el plazo ofertado de 21 semanas, contadas a partir de la fecha del acta de replanteo. al haber sido la empresa licitadora que ha formulado la oferta más ventajosa económicamente para el Ayuntamiento, tanto por el contenido de la oferta técnica como en la reducción del plazo de ejecución, tal y como se ha justificado en los informes incorporados al expediente y como se ha dejado acreditado en el presente procedimiento, con cumplimiento de todos los requisitos establecidos.*

*SEGUNDO.- Requerir al adjudicatario del contrato para que se persone en el Ayuntamiento en un plazo no superior a 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en el que reciba el correspondiente requerimiento comuni-*

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

*testu bateginaren 156. artikuluan xedaturikoaren arabera, kontratua izenpetzeko. Aurretiaz, aldi baterako enpresa-elkartearen eraketari buruzko jatorrizko eskritura edo haren kopia bat aurkeztu beharko du.*

*cando la adjudicación del contrato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 del TR de la LCSP, a fin de suscribir el correspondiente contrato, debiendo aportar previamente la escritura original de constitución de la UTE o copia de la misma.*

*HIRUGARRENA.- Alkatetzari ahalmena ematea erabaki hau betearaztearren egoki diren egintza guztiak egiteko eta administrazio-kontratua izenpetzeko.*

*TERCERO.- Facultar a la Alcaldía para cuantos actos sean oportunos realizar en ejecución del presente acuerdo y en particular tras suscribir el correspondiente contrato administrativo.*

*LAUGARRENA.- Kontratua enpresa esleipendunarekin formalizatu dela jakinarazteko iragarkia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Kontratugilearen Profilean (Estatuko Kontratazio Plataforma) eta bando batean, SPKLren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*CUARTO.- Publicar el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, Perfil del Contratante (Plataforma de contratación del Estado) y Bando relativo a la formalización del contrato con la empresa adjudicataria conforme a lo establecido en el art. 154 del TR de la LCSP.*

*BOSGARRENA.- Kontratu-agirietan ezarritako gainerako baldintzak betetzea eta esleipendunak eginiko eskaintzan ezarri dituen proposamenak, hobekuntzak eta abar betetzea.*

*QUINTO.- Dar cumplimiento a las demás condiciones establecidas en los documentos contractuales, así como a las propuestas, mejoras, etc. contenidas en la oferta formulada por el adjudicatario.*

*SEIGARRENA.- Erabaki hau lizitazioan parte hartu duten enpresei helaraztea, jakitun egon daitezen eta dagozkion ondorioetarako.*

*SEXTO.- Dar traslado a cada una de las empresas que han participado en la presente licitación del acuerdo adoptado para su conocimiento y a los efectos oportunos.*

*ZAZPIGARRENA.- Izapideturiko lizitazio-espedientea onartzea."*

*SÉPTIMO.- Aprobar el expediente licitatorio tramitado."*

Alkate jaunak, bilkurako presidentea den aldetik, talde politikoetako bozeramaileak gonbidatzen ditu hitz egiteko txanda erabiltzera, baina bozeramaileek berretsi egiten dute informazio-batzordean adierazitakoa.

El Señor Alcalde, Presidente de la sesión, invita a los portavoces de los grupos políticos a que utilicen el turno de intervención, ratificándose en lo manifestado en la Comisión Informativa.

Bozketa egiten da jarraian, eta, haren ondorioz, hau erabakitzen du Udaleko Osoko Bilkurak, EAJ-PNV taldearen zazpi ordezkarien baiezko botoekin eta Bildu udaltaldearen hiru ordezkarien aurkako botoekin:

Seguidamente se procede a la votación, en virtud de la cual el Pleno del Ayuntamiento, con los votos a favor de los 7 representantes de EAJ/PNV y con los votos en contra de los 3 representantes del grupo municipal BILDU, acuerda:

**LEHENA.-** «Arteagan kirol-, gizarte- eta kultura-ekipamendua egiteko obrak. 1.

**PRIMERO.-** Adjudicar el contrato de Ejecución de las obras de equipamiento

fasea: hormak egitea» izeneko kontratua INBISA CONSTRUCCIÓN aldi baterako enpresa-elkarteari (BYCO, PERTSONA BAKARREKO SOZIETATE ANONIMOA – CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, SA) esleitzea, eskainitako zenbatekoan: 458.405,51 euro (BEZik gabe); BEZaren zenbatekoa 96.265,16 euro denez, gutira 554.670,67 euro egiten du (BEZa barne); eskainitako 21 asteko epean egin beharko dituzte obrak, zuinketa-aktaren datatik kontaturik. Enpresa horrek egin du ekonomikoki eskaintzarik onena Udalarentzat, bai eskaintza teknikoaren edukiarengatik eta bai exekuzio-epearen murriztapenarengatik, prozedura honetan egiaztatuta geratu denez, eta ezarritako betekizun guztiak bete ditu.

deportivo y socio-cultural en Arteaga – 1ª Fase: Ejecución de Muros, a la UTE INBISA CONSTRUCCIÓN (BYCO, S.A. SOCIEDAD UNIPERSONAL – CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, S.A., en el importe ofertado de 458.405,51 € (IVA excluido), siendo el importe del IVA de 96.265,16 €, lo cual totaliza el importe de 554.670,67 € (IVA incluido), para la ejecución de dichas obras en el plazo ofertado de 21 semanas, contadas a partir de la fecha del acta de replanteo. al haber sido la empresa licitadora que ha formulado la oferta más ventajosa económicamente para el Ayuntamiento, tanto por el contenido de la oferta técnica como en la reducción del plazo de ejecución, tal y como se ha justificado en los informes incorporados al expediente y como se ha dejado acreditado en el presente procedimiento, con cumplimiento de todos los requisitos establecidos.

**BIGARRENA.-** Kontratuaren esleipendunari eskatzea Udaletxera ager dadila gehienez ere hamabost egun baliodunneko epean, kontratua esleitu zaiola jakinarazten dion errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaturik, SPKLren testu bateginaren 156. artikuluan xedaturikoaren arabera, kontratua izenpetzeko. Aurretiaz, aldi baterako enpresa-elkartearen eraketari buruzko jatorrizko eskritura edo haren kopia bat aurkeztu beharko du.

**SEGUNDO.-** Requerir al adjudicatario del contrato para que se persone en el Ayuntamiento en un plazo no superior a 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en el que reciba el correspondiente requerimiento comunicando la adjudicación del contrato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 del TR de la LCSP, a fin de suscribir el correspondiente contrato, debiendo aportar previamente la escritura original de constitución de la UTE o copia de la misma.

**HIRUGARRENA.-** Alkatetzari ahalmena ematea erabaki hau betearaztearren egoki diren egintza guztiak egiteko eta administrazio-kontratua izenpetzeko.

**TERCERO.-** Facultar a la Alcaldía para cuantos actos sean oportunos realizar en ejecución del presente acuerdo y en particular tras suscribir el correspondiente contrato administrativo.

**LAUGARRENA.-** Kontratua enpresa eslei-pendunarekin formalizatu dela jakina-razteko iragarkia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Kontratugilearen Profilean (Estatuko Kontratazio Plataforma) eta bando batean, SPKLren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**CUARTO.-** Publicar el correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, Perfil del Contratante (Plataforma de Contratación del Estado) y Bando relativo a la formalización del contrato con la empresa adjudicataria conforme a lo establecido en el art. 154 del TR de la LCSP.

**BOSGARRENA.-** Kontratu-agirietan ezarri-tako gainerako baldintzak betetzea eta esleipendunak eginiko eskaintzan ezarri dituen proposamenak, hobekuntzak eta abar betetzea.

**QUINTO.-** Dar cumplimiento a las demás condiciones establecidas en los documentos contractuales, así como a las propuestas, mejoras, etc. contenidas en la oferta formulada por el adjudicata-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

rio.

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau lizitazioan parte hartu duten enpresei helaraztea, jakitun egon daitezen eta dagozkion ondorioetarako.

**SEXTO.-** Dar traslado a cada una de las empresas que han participado en la presente licitación del acuerdo adoptado para su conocimiento y a los efectos oportunos.

**ZAZPIGARRENA.-** Izapideturiko lizitazio-espedientea onartzea.

**SÉPTIMO.-** Aprobar el expediente licitatorio tramitado.

**B) UDALBATZAKO ORGANOEN GAINEKO KONTROLA.**

**B) CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

Alkate jaunak hartzen du hitza, eta galdetzen du ea udalkideetariko batek moziorik ote duen Udaleko Osoko Bilkurak zuzenean eztabaidatzeko, mozioa presakotzat joko den bozkatu behar baita eztabaidatu eta bozkatu baino lehen.

El Sr. Alcalde toma la palabra para preguntar si alguno de los Corporativos tiene alguna moción que tratar directamente al Pleno, a fin de votar la urgencia de la misma, previamente a su debate y votación.

Jarraian, Ibai Elorriaga Bildu udaltaldearen ordezkariak proposatutako mozioa irakurtzen da; udalerrian agur zibilak arautzeari buruzkoa da mozio hori, eta hau da haren edukia:

Seguidamente se procede a dar lectura a la moción propuesta por el representante del grupo municipal Bildu, Ibai Elorriaga, relativa a la regulación en el municipio de las despedidas civiles, con el siguiente contenido:

**«AGUR ZIBILAK EGITEKO MOZIOA**

»Gizarteak, oro har, badaki estatu ez-konfesional batean pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzakoa bermatu behar duela erakundeek.

»Era berean, badakigu ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizartea dugula, eta gizarte aniztun hau bere ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua aldatzen ari dela etengabe.

»Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitzea hautatu dutenen omenez ospakizun duin eta pertsonalak egin ahal izateko, hildakoaren bizitza-ikuskeraren arabera, hain zuzen ere.

**»MOCIÓN SOBRE LA CELEBRACIÓN DE DESPEDIDAS CIVILES**

»Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades.

»Asimismo, es conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de nuestra sociedad de carácter plural y en transformación constante en cuanto a la manifestación de sus costumbres y actos sociales.

»En la sociedad actual es preciso que se permita la celebración de despedidas u homenajes civiles por fallecimiento, para poder ofrecer una ceremonia digna y personal a las personas que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a la forma en que la persona difunta concebía la vida.

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

»Gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijiodunek hildakoei agur esateko ospakizun liturgikoetarako tokiak dituzten moduan, Zamudioko Udalari dagokio egunetik egunera handitzen ari den agur zibilak egiteko eskaera sozialari erantzuna ematea.

»Gaur egun Zamudion, ez dago leku edo egoitza publikorik hileta zibilak egin ahal izateko. Gure ustez, Zamudioko Udalak gero eta eskaera handiagoa izango duen behar sozialari erantzuna emateko beharra dauka.

»Aurrekoa dela eta, Zamudioko Udalbatzak hurrengo konpromezua hartzen du eta Alkatetzak honakoa aintzat har dezala adierazten du:

»Senideek, lagunek, elkarteek edota entitateek hiletak eta agur esateko ekitaldi zibilak ospatu ahal izateko, xede honekin udal lokalen eta espazio publikoaren erabilera baimentzeko eta arautzeko udal ordenantza bat sortuko da.»

Mozioa irakurtzen amaitutakoan, mozio hori presakotzat joko den bozkatzen da, eta bilkuran dauden guztiek erabakitzen dute aho batez presakotzat jotzea.

Alkate jaunak talde politikoetako bozeramaileak gonbidatzen ditu hitz egiteko txanda erabiltzera eta mozio horri buruz egoki deritzotena adieraztera, baina adierazten du beraren taldeak ez duela eragozpenik Udalak agur zibilak egiteko araudia ezar dezan. Baina —jarraitzen du hizketan— aztertu beharra dago zein den hori arautzeko modurui egokiena: ordenantza berezi bat ezarriz edo udal-lokalen erabilerari buruz dagoen ordenantzaren bat aldatuz. Era horretan, udal-lokaletakoren bat erabili ahal izango da horretarako. Azkenean, adierazten du lan-talde bat egin daitekeela, talde bien artean, azter dadin zer aldaketa egin behar diren eta nola ezar daitekeen zerbitzua ahalik eta modurik onenean eskaintzeko.

»Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio municipio ofrecen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos de despedida a sus difuntos, el Ayuntamiento de Zamudio pretende de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

»Actualmente en Zamudio no existe ningún lugar o sede pública en las que se pueda celebrar funerales civiles. A nuestro entender, el Ayuntamiento de Zamudio tiene la obligación de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

»Por todo lo anterior, la Corporación de Zamudio adopta el siguiente compromiso y solicita que la Alcaldía considere lo siguiente:

»Se redactará una ordenanza municipal que autorice y regule el uso de locales municipales y espacios públicos para la celebración de funerales y actos civiles de despedida por parte de familiares, amistades, organizaciones o entidades.»

Finalizada la lectura de moción, se procede a votar la urgencia de la misma, siendo acordado por la unanimidad de los asistentes.

El Sr. Alcalde invita a los portavoces de los grupos para que tomen la palabra y manifiesten lo que estimen oportuno en relación con la citada moción, si bien manifiesta que por parte de su grupo no existe ningún inconveniente en que el Ayuntamiento establezca una regulación para la celebración de las despedidas civiles. Ahora bien, continúa su intervención, precisa que debe estudiarse cuál es la forma mejor de regularlo; mediante una ordenanza específica o mediante la modificación de alguna ordenanza existente sobre la utilización de los locales municipales. De esa forma se pueden utilizar para dicho fin alguno de los locales municipales. Señala finalmente que se puede hacer un grupo de trabajo para, entre ambos, estudiar que modificaciones realizar y como establecer el servicio para que se pueda realizar de la mejor forma posi-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

ble.

Jarraian, Ibai Elorriaga Bildu udaltaldearen ordezkariak hartzen du hitza, eta adierazten du beraren taldeak proposatu duela ordenantza berezi baten bidez arautzea, baina uste bada dauden ordenantzetariko bat aldatzearekin nahikoa dela, ez dagoela arazorik horretarako. Bere hitzaldian zehazten du, orain dela gutxi horrelako kasu bat gertatu denez, ikusi dela beharrezkoa dela araudiren bat ezartzea, eta ordenantza berezi bat ezarriz edo dauden ordenantzetariko bat aldatuz egin daitekeela hori. Amaitzeko, adierazten du onartzen duela alkatearen batzartzeko gonbita.

Seguidamente el representante del grupo municipal Bildu, Ibai Elorriaga, toma la palabra para señalar que su grupo ha propuesto la regulación mediante una ordenanza específica, pero que si se estima que es suficiente con modificar alguna de las existentes, no existe problema alguno en participar en ello. Precisa en su intervención que al darse recientemente un caso, se ha visto la necesidad de establecer una regulación que puede ser en una ordenanza específica o modificando la regulación e alguna de las existentes. Finaliza su intervención señalando que aceptan la invitación del Alcalde para reunirse.

Bozketa egiten da eta bilkuran dauden kideek aho batez erabakitzen dute aurkeztutako mozioa onartzea; hau da mozio horren xedapen-atala:

Se procede a la votación en virtud de la cual, por la unanimidad de los miembros asistentes, se acuerda aprobar la moción presentada cuya parte dispositiva es la siguiente:

Senideek, lagunek, elkarteek edota entitateek hiletak eta agur esateko ekitaldi zibilak ospatu ahal izanteko, xede honekin udal lokalen eta espazio publikoaren erabilera baimentzeko eta arautzeko udal ordenantza bat sortuko da.

Se redactará una ordenanza municipal que autorice y regule el uso de locales municipales y espacios públicos para la celebración de funerales y actos civiles de despedida por parte de familiares, amistades, organizaciones o entidades.

9.- <u>ESKAERAK ETA GALDERAK</u>.

Jarraian, alkate jaunak hartzen du hitza, eta adierazten du, idatziz eginiko galderak irakurri baino lehen, udalkideek aurreko osoko bilkuran galderak erantzungo dituela.

Aditzera ematen da asko izan direla aurreko osoko bilkuran eginiko galderak eta orain idatziz aurkeztu direnak. Zehazten du galdera horiei dagozkien alderdi batzuk dagoeneko erantzunda daudela informazio-batzordeen bitartez edo aurreko osoko bilkuretan, eta hiru hilean behin eman direla erantzunak. Horregatik uste du ez dela egokia erantzunak berriro errepikatzea, datuak ez direlako kasu askotan aldatu eta eskura dituztelako.. Amaitzeko, adierazten du, eskaturiko datuak be-

- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS</u>.

Seguidamente el Sr. Alcalde toma la palabra para decir que, antes de proceder a la lectura de las preguntas formuladas por escrito, procederá a dar respuesta a las preguntas formuladas en el pleno anterior por los Corporativos.

Señala que han sido numerosas las preguntas formuladas, tanto en el Pleno anterior como las que se han presentado ahora por escrito. Precisa que algunos de los aspectos a los que se refieren ya se les ha dado contestación a través de las Comisiones informativas y en anteriores Plenos o se han dado trimestralmente. Por ello estima que no resulta adecuado volver a repetir las contestaciones, ya que los datos no han cambiado en muchas ocasiones y disponen de ellos. Concluye señalando que si se

rriak badira, ez dagoela arazorik datu horiek emateko.

trata de datos nuevos que se interesan no hay problema en facilitarlos.

Jarraian, alkate jaunak erantzuten ditu eginiko galderak. Zamudio Orain aldizkariari dagokionez, aldizkari horren kostuak aipatu ziren: langileak, materiala, banaketa eta abar, eta baieztatu zen EAJ-PNVren kostu bat zela; horri buruz adierazten du, askotan errepikatu den bezala, ez dela alderdi baten propaganda, baizik eta udal-informazioa, zer gertatzen den herrian, jarduerak, etab.

Seguidamente procede el Sr. Alcalde a contestar a las preguntas formuladas. En relación con la Revista Zamudio Orain, en la que se hacía referencia a los costes de la misma: personal, material, reparto, etc, así como que es un costo del PNV, señala que, como ya se ha repetido en numerosas ocasiones, no se trata de la propaganda de un partido si no de la información municipal y de lo que sucede en el municipio, actividades, etc

Alkate jaunak hizketan jarraitzen du, eta informazioa hobetu beharra aipatzen du, haiek beti pausoak egiten ari baitira informazioa hobetzeko eta horrela gardentasuna hobetzeko. Horren guztiaren kostuari dagokionez, adierazten du oposizioak dagoeneko ezagutzen dituela datuak, hiru hilez behin jasotzen dituelako Udalaren kontuak, bertan zehazten direlako Udalak ordaintzen dituen fakturak, eta ezagutzen dituelako izenpetutako kontratuak.

El Sr. Alcalde continúa su intervención haciendo referencia a la necesidad de mejora de la información, en la que ellos siempre están dando los pasos para mejorarla y con ello mejorar la transparencia. Respecto al costo de todo ello, señala que la oposición ya conoce los datos puesto que reciben trimestralmente las cuentas del ayuntamiento, donde se reflejan las facturas que se pagan por el Ayuntamiento y conocen los contratos suscritos.

Agurtzane Bernaola Bildu udaltaldearen ordezkariak hartzen du hitza, eta galdetzen du zer soldata jasotzen duten Udaletik *Orain* aldizkaria prestatzen parte hartzen duten pertsonek (Mari Carmen Noya, Amagoia Gezuraga, Isaac, etab.). Galdetzen du, Udalaren propagandatzat jotzen ez bada, orduan zergatik ez den argitaratzen hauteskunde garaian, hori guztia kontraesana baita.

La representante del grupo municipal Bildu, Agurtzane Bernaola, toma la palabra para preguntar por los sueldos que perciben del Ayuntamiento las personas que toman parte en la elaboración de la revista Orain (Mari Carmen Noya, Amagoia Gezuraga, Isaac, etc). Pregunta que cómo no se considera propaganda del Ayuntamiento y por qué no se saca entonces en la época de las elecciones, ya que todo ello es una contradicción.

Alkate jaunak hartzen du hitza, eta adierazten du ez dela kontraesan bat, hauteskunde-kanpainan ezin delako argitaratu ez aldizkaririk ez erakunde-propagandarik. Azpimarratzen du ezin dela erakunde-propagandarik egin, oinarrizkoa bakar-bakarrik egin daiteke.

El Sr. Alcalde toma la palabra para precisar que no se trata de una contradicción, ya que en la campaña electoral no se puede sacar ninguna revista, ni propaganda institucional. Insiste en que no se puede realizar ninguna propaganda institucional, solamente se puede hacer de lo básico.

Gaineratzen du Bilduko kideek jarraitzen dutela pentsatzen Zamudioko azterketa etnotoponimikoaren emaitzen aurkezpena hauteskunde-propaganda

Continúa diciendo que los miembros de Bildu, siguen pensando que la presentación de los resultados del estudio Etnotoponímico de Zamudio era propa-

izan zela, baina eginiko lan batzuen aurkezpena zela. Hain zuzen ere horregatik ez ziren emaitza horiek hauteskunde-garaian aurkeztu beste edozein inaugurazio edo aurkezpen bezala. Zehazten du debeku horien ardura-dunak politikariak eurak izango direla, horren erabilera txarra egin dutelako. Azpimarratzen du debeku horrek inaugurazioei ez ezik informazioei, aurkezpenei eta abarri ere eragiten diela. Horregatik ez gaude ziur *Orain* aldizkaria argitaratzen badugu, legeria betetzen dugun edo ez, aldizkari horrek erakunde-informazioa duelako. Horregatik, badaezpada ere, ez da aldizkaria argitaratzen hauteskunde-garaian. Amaitzeko, adierazten du beti izan dela bere asmoa jendeari ez eragitea zer boto eman, eta aldizkarian Udalaren erakunde-informazioa argitaratzen dela eta horregatik ez dela hauteskunde-garaian argitaratzen, badaezpada.

ganda electoral, cuando solamente era la presentación de unos trabajos realizados. Pero por eso precisamente dicha presentación no se hizo en periodo electoral como cualquier otra inauguración o presentación. Precisa que de dichas prohibiciones seguramente que serán los propios políticos los responsables, al haber hecho un mal uso de ello. Insiste en que la prohibición no solamente afecta a las inauguraciones sino también a las informaciones, presentaciones, etc. Por ello con la revista Orain no se tiene la seguridad de que con lo que se publica se esté cumpliendo la ley ya que contiene información institucional. Por ello, por precaución no se saca la revista en los periodos electorales. Concluye diciendo que siempre se ha querido no ejercer ninguna influencia en el ejercicio del voto y que lo que se publica en la revista es información institucional del Ayuntamiento, razón por la cual en periodo electoral, por precaución, no se publica.

Agurtzane Bernaola Bildu udaltaldearen ordezkariak berriro hartzen du hitza, eta adierazten du beraren taldearen iritziz EAJ-PNVren propaganda egiten dela, eta eskatzen du aldizkaria argitaratu baino lehen utz dakiela aldizkaria aztertzen eta prestaketan parte hartzen.

Toma nuevamente la palabra la representante del grupo municipal Bildu, Agurtzane Bernaola, para decir que en opinión de su grupo sí que se hace propaganda del PNV, solicitando poder examinar la revista antes de que la misma se publique y participar en su elaboración.

Alkate jaunak erantzuten dio udal-aldizkaria eta alderdi politiko baten aldizkaria desberdinak direla. Era berean, adierazten du, aldizkaria ixten denean, jarraian bidaltzen dela inprimategira, baina ez dagoela arazorik inprimategira bidali baino lehen aldizkariaren edukiak bidaltzeko, ezagutu nahi badituzte. Aldizkariaren prestaketan parte hartzeari dagokionez, alkate jaunak adierazten du gobernu-taldea bat dela eta oposizioa beste talde bat dela, eta horregatik uste duela ezin dela bietara jokatu.

El Sr. Alcalde contesta a la citada concejal diciendo que la revista municipal es distinta de una revista de partido. Señala igualmente que en cuanto se cierra la misma se envía a imprenta seguidamente, sin que exista problema alguno en remitirles los contenidos de la revista antes de mandarlos a imprenta, si lo que quieren es conocer los mismos. Por lo que respecta a la posibilidad de tomar parte en la elaboración de la revista, continúa el Sr. Alcalde, señala que el equipo de gobierno es uno y la oposición otra formación, por lo que entiende que no se puede estar a ambos.

Aldizkariaren zuzendaritzari dagokionez, aditzera ematen du udal-gobernuaren zuzendaritza arduratzen dena arduratu behar dela aldizkariaren zuzendaritzaz.

En relación con la dirección de la revista, señala que quien lleva la dirección del gobierno municipal es quien debe llevar la dirección de la revista.

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

Jarraian, alkate jaunak irakurtzen du Bildu udal-taldearen ordezkariek idatziz eginiko galdera:

2.- Itzulpenak: hilero-hilero kanpoko enpresa bati enkargatzen dizkiogu euskarazko itzulpenak. Argi dago pertsona bakarrerekin nahiko ez dela. Pertsona batek ezin du lan karga bere gain hartu. Ez duzue uste pertsona bat kontratatzeko unea heldu dela?

Galdera irakurtzen amaitutakoan, alkate jaunak adierazten du itzultzailea bajan edo oporretan dagoenean bakarrik eramaten zaizkiola itzuli beharreko gaiak kanpoko enpresa bati, eta horregatik ez dela behar beste postu bat sortu horretarako. Era berean, zehazten du badirela beste arlo batzuk udalean beharrizan handiagoa dutenak postuak lehiaketara ateratzeko edo betetzeko.

Alkate jaunak berriro hartzen du hitza, eta irakurtzen du Bildu udal-taldeak idatziz eginiko galdera:

3.- Irrati eta egunkarietako Iragarkiak: gure ustez, gehiegizkoa da iragarkietan gastatzen den dirua. Adibidez, Pregoian 2.213 €; Gabonetako PINa publizitatzeko 726 € Bizkaia Irratian.

Alkate jaunak adierazten du ematen duela ez dela ulertu ondo zer den Pregón, eta horri buruz argitzen du iragarkiak aldizkari ofizialean eta prentsan argitaratzeko kudeaketa-lanak egiten dituen enpresa dela. Azken batean, araudiak agintzen dituen argitalpenak egiten ditu dagozkion hedabideetan, baina ez duela zerikusirik ezein eratako propaganda egitearekin.

Alkate jaunak adierazitakoa argitzearren, Agurtzane Bernaola Bildu udaltaldearen ordezkariak galdetzen du egunkari guztietara ala bakar batzuetara bidaltzen diren.

Jarraian, beste batzuek ere hartzen

Seguidamente el Sr. Alcalde procede a dar lectura a la pregunta formulada por escrito por los representantes del grupo municipal Bildu:

2.- Traducciones: Todos los meses encargamos traducciones de euskera a una empresa externa. Está claro que una única persona no es suficiente. Una persona no puede con todo el volumen de trabajo ¿No creéis que ha llegado ya el momento de contratar una persona?

Finalizada la lectura de la pregunta el Sr. Alcalde señala que solamente se llevan los temas a traducir a una empresa externa cuando el traductor está de baja, vacaciones, etc, por lo que no se precisa para ello un nuevo puesto. Precisa igualmente que hay otros sectores en el Ayuntamiento donde sí que se aprecia una mayor necesidad de sacar los puestos o de cubrirlos.

Nuevamente el Sr. Alcalde toma la palabra para dar lectura a la pregunta formulada por escrito por el grupo municipal Bildu:

3.- Anuncios en Radio y prensa: a nuestro entender, el dinero que se gasta en anuncios es excesivo. Por ejemplo, 2.213 € en el Pregón; 726 € para publicitar el PIN en Bizkaia Irradia.

Aclara el Sr. Alcalde que parece que no se sabe bien que es Pregón, señalando que es una empresa que gestiona la publicación de anuncios en el Boletín Oficial y en la prensa. En definitiva se encargan de realizar las publicaciones que exige la normativa en los medios correspondientes, pero que no tiene nada que ver con la realización de propaganda de ningún tipo.

A fin de aclarar lo indicado por el Sr. Alcalde, la representante del grupo municipal Bildu, Agurtzane Bernaola, pregunta si se manda a todos los diarios o a algunos.

Seguidamente se producen diversas in-

Zamudio Udala
www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

dute parte eztabaidan, iragarki ofizialak egunkarietan argitaratzeko kudeaketak Pregón bitartez egiten direla (*Deia* eta *Berria* egunkarietan) argitzeko.

tervenciones con el fin de aclarar que las publicaciones en los diarios de los anuncios oficiales se gestionan a través de Pregón (en los diarios Deia y Berria).

Alkate jaunak hartzen du hitza, eta adierazten du fakturan aipatzen den publizitatea fakturan zehazten den baino kontzeptu gehiagori dagokiela, nahiz eta horrek ez duen esan nahi Udalak antolatutako ekitaldi batzuen publizitatea hedabide guztietan iragartzen dela; esaterako, Gabonetako haurparkeari ez zaio publizitaterik ematen, beharrezkoa delako beste udalerri batzuetatik etortzea.

El Sr. Alcalde toma la palabra para señalar que la publicidad a que se refiere la factura son por mas conceptos de los contenidos en ella, sin que quiera decir que la publicidad de diversos eventos organizados por el Ayuntamiento se realicen en todos los medios, tal como pasa con el PIN que no se le da publicidad ya que se precisa de que vengan de otros municipios.

Alkate jaunak berriro hartzen du hitza, eta irakurtzen du Bildu udal-taldeak idatziz eginiko galdera:

Nuevamente el Sr. Alcalde toma la palabra para dar lectura a la pregunta formulada por escrito por el grupo municipal Bildu:

4.- Angel eta Peru: langile hauek hilero jasotzen duten soldata 3.000 eurotik gorakoa da: Kontuan hartu gabe bestelako edozein lan egiten dutenean (esklusibitatea dutelarik) jasotzen duten dirutza. Kontuan izanda sarri izaten dituzten hanka-sartzeak, merezi du?

4.- Angel y Peru: la retribución que mensualmente perciben estos trabajadores es superior a los 3.000 euros. Teniendo en cuenta el dineral que perciben cada vez que se les encarga cualquier otro trabajo (aun teniendo exclusividad). Teniendo en cuenta las meteduras de pata que frecuentemente tienen, ¿merece la pena?

a) Adibidez, bere garaian Responsabilidad Patrimonial delakoak eskatu genizkion Peruri eta oraindik ez dakigu erantzukizun ikerketak zein ibilbide egin duen.

a) Por ejemplo, en su momento exigimos la responsabilidad patrimonial a Peruri, y aun no sabemos cuál ha sido el recorrido de la investigación patrimonial.

Hemen ezarritako galderari erantzuteko, alkate jaunak adierazten du ez duela uste sarri sartzen dutela hanka, haiek dioten bezala, nahiz eta egia den denok okertzen garela batzuetan, baina zerbaiti ezetz esateak ez du esan nahi txarto dagoela, gustatu ez arren. Zehazten du egiten duten lana oso garrantzitsua dela, ez bakarrik egiten dutenagatik, baizik eta laguntzen dien kabinete bat dutelako atzean.

El Sr. Alcalde responde a la pregunta anteriormente reflejada, diciendo que no cree que metan la pata habitualmente como ellos dicen, sin perjuicio de que todos erremos en algunas ocasiones, pero que el decir que no a algo no quiere decir que esté mal, aunque no guste. Precisa que el trabajo que realizan es muy importante, no solamente por el que ellos hacen sino porque detrás tienen un gabinete que les ayuda.

Ibai Elorriaga Bildu udal-taldearen ordezkariak hartzen du hitza, eta adierazten du badakitela Zamudioko langileak onenak direla, baina haiek orain dela denbora eskatu zutela Peruri on-

El representante del grupo municipal Bildu, Ibai Elorriaga, toma la palabra para precisar que ya saben que los trabajadores de Zamudio son los mejores pero que ellos pidieron hace tiempo

dare-erantzukizuna eskatzea eta oraindik ez zaiela erantzun. Horri dagokionez, adierazten du badirela bost egun espedientea eskatu dutela, baina oraindik ez zaiela ezer aurkeztu, eta horregatik formulatzen dutela aipaturiko gai hori Udaleko Osoko Bilkura honetan.

que se exigiera la responsabilidad patrimonial a Peru y todavía no han recibido respuesta alguna. En dicho sentido, señala que hace cinco días han pedido el expediente sin que se les haya presentado nada, por lo que en éste Pleno formulan la cuestión citada.

Alkate jaunak berriro hartzen du hitza, eta irakurtzen du Bildu udal-taldeak idatziz eginiko galdera:

Nuevamente el Sr. Alcalde toma la palabra para dar lectura a la pregunta formulada por escrito por el grupo municipal Bildu:

5.- Eskola: ikastetxearen alboko atea konpontzea izan da haren azken obretariko bat (4.214,56 €). Zenbat hanka-sartze gehiago ordaindu beharko ditugu?

5.- Escuela: Una de las últimas obras ha sido la reparación de la puerta lateral del colegio (4.214,56 €). ¿Cuántas más meteduras de patas vamos a tener que pagar?

Zenbat diru gehiago ordaindu behar dugun eskolagatik, alde batera utzita «eskudirutan» ordaindutakoa eta hanka-sartzeengatik orain arte eginiko konponketa ugariak?

Cuánto más nos va a salir las escuelas, quitando lo pagado a "tocateja" y las múltiples reparaciones hechas hasta ahora a causa de las meteduras de pata?

Alkate jaunak hartzen du hitza, eta adierazten du bere iritziz 6.500 $m^2$-ko eraikin batean edonork egin dezakeela okerren bat, baina oker horiek txikitzat jo daitezkeela. Nahiz eta izan diren gauza batzuk aldatu behar izan direla ez zirelako egokiak edo beste batzuei hobeak iritzi zaielako, badirela gauza batzuk erabiliaren poderioz hobetzen eta ematen zaien erabilerara egokitzen saiatzen direnak. Baina adibide bat jartzearren, orain jolastokiari egingo zaion itxitura, korronterik ez izateko hartuko den neurria… Askotan zaila da halako gauzak, a priori, aurreikusten, ez delako jakiten zelan erabiliko den eraikina. Hizketan amaitzearren, adierazten du halako neurriak dituen eraikin batean beti izaten direla hobetu beharreko gauzak, eta gainean egon beharra dagoela hobetuz joateko.

El Sr. Alcalde toma la palabra para señalar que en su opinión en 6.500 $m^2$ de edificio, evidentemente, todo el mundo puede tener algún error, pudiendo calificarse los mismos mínimos. Aunque haya habido cosas que se han tenido que modificar porque se ha estimado que no eran las más adecuadas o se estimaban mejores, hay cosas que con el uso se van intentando mejorar, y adaptando al uso que se les da. Pone como ejemplo el cierre del patio que se va a hacer ahora, la medida que se va a tomar para evitar el que haya corrientes… Son cosas que muchas veces, a priori, son difíciles de prever, porque tampoco se sabe cómo se va a usar el edificio. Finaliza su intervención diciendo que en un edificio de esa magnitud siempre hay cosas que mejorar y hay que estar encima para ir mejorando.

Alkate jaunak berriro hartzen du hitza, eta irakurtzen du Bildu udal-taldeak idatziz eginiko galdera:

Nuevamente el Sr. Alcalde toma la palabra para dar lectura a la pregunta formulada por escrito por el grupo municipal Bildu:

6.- Bilkuretara joateagatiko dietak, 2013ko 4. hiruhilekoan: 46.242,30 € (alkatearen eta Elenaren soldata kontuan hartu

6.- Dietas por asistencia a sesiones, 4º trimestre del 2013: 46.242,30 € (sin contar el suelo del Alcalde y el de Elena).

gabe).

Dirutza hau noiz arte jarraituko dugu kobratzen? Noiz arte jarraituko dugu Udala diru-husten hilero zinegotzientzako dietekin?

¿Hasta cuándo VAMOS a seguir cobrando este dineral? ¿Cuánto más vamos a seguir sangrando al ayuntamiento en dietas a concejales todos los meses?

Alkate jaunak erantzuten dio udal- edo udalaz gaineko araudi-aldaketa bat egin arte jarraituko dela horrela.

Contesta el Sr Alcalde diciendo que será así hasta que haya una modificación normativa municipal o supramunicipal.

Alkate jaunak berriro hartzen du hitza, eta irakurtzen du Bildu udal-taldeak idatziz eginiko galdera:

Nuevamente el Sr. Alcalde toma la palabra para dar lectura a la pregunta formulada por escrito por el grupo municipal Bildu:

7.- Kontabilitateari laguntzeko orduak: M. Men-dizabal & Cia SA: 1.839 €. Norbaitek azal dezake hori? Ez dago kontable nahikorik udaletxean?

Galderari erantzuteko, alkate jaunak adierazten du zoritxarrez Udalak gaur egun dituen langileekin ez dela iristen egin beharreko betebehar ekonomiko guztietara. Zehazten du Udalaren arlo horretan lan egiten duten pertsonek modu bikainean egiten dutela beren lana. Beren lanean bete-betean murgildu arren, ez dira iristen gaur egun egin behar dugun guztira, eta horregatik jo behar izan dugu gaur egun beste prozedura batera, kanpoko enpresa bat kontratatuz. Zehazten du berari ere ez zaiola gustatzen arlo horretan gastatzea, baina ez dela beste aukerarik izan.

